



# HARRIAREN INGURUKO FESTA HANDIA

Harri Festa izango da igandean Amezketan: Aimar Irigoien ariko da, eta baita harri-zulatzailleak ere 5

TOLOSALDEKO  
ETA LEITZALDEKO

# hitza



Osteguna  
2008-11-06

VIURTEA 1.552 ZENBAKIA  
ESKUALDEKO EGUNKARIA

WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO

JOSE LUIS REBORDINOS DONOSTIAKO BELDURREZKO ZINEMAREN ASTEKO ZUZENDARIA

## «Jende gazte ugari erakartzeko modua eskaintzen du jaialdiak»

**GAZTELU** Jaialdian tentsioa bizi duela, baina poztasun garaia ere badela dio, Gaztelun bizi den zinemazaleak

**TOLOSA** Hilaren 22an film laburrak eta 'Millenium Actress' eta 'Dejame entrar' filmak izango dira ikusgai 4



Eli Nosellas, Itziar Doiazabal eta Miren Barberia, herenegun, Sua emanaldiaren aurkezpenean. R. CALVO

## SUA ETA ITXAROPENA ARDATZ HARTUTA

**IBARRA** Hilaren 16an aurkeztuko dute Alurr dantza taldearen 'Sua' lan berria, «garai bateko emakume aurrerakoien erretratua erakutsiz» 6



Jende ugari bildu zen atzo goizean klinikaren kanpoaldean. I.T.

## Asuncion klinikaren aparkalekuan ordaintzeko asmoa ez dute onartzen

**TOLOSA** Langileen ordekaritzak elkarretaratzeari egin zuen atzo, ELA eta LAB sindikatuek deituta 2

txokoa h

### 2 sarrera pare

zozketan, deitu eta eskuratu!



aspepelota.com

Azaroak 10, astelehena  
16:30ean • Tolosako  
Beotibar pilotalekuan

Galarza V - Merino I  
Berasaluze Ix - Beroiz

GONZALEZ - LASA III  
OLAZABAL - PASCUAL

Argote  
Cabrerizo

### 2 sarrera pare

zozketan,  
deitu eta eskuratu!

Kroke  
taldearen  
kontzertua

Azaroak 8, larunbata • 20:30ean  
Tolosako Leidorren



HITZAREN harpidedunentzat abantailak

Parte hartzeko, deitu goizez zenbaki honetara: 943 65 56 95



## Aparkalekua doan izatea eskatuz

**TOLOSA** ■ ELA eta LAB sindikatuek deituta, elkarretaratzea egin zuen atzo Asuncion klinikako langileen ordezkaritzak. Azaldu zuten, «asmo ona da aparkaleku berria egitea, baina hemen ere negozioa egin nahi dute; behin eta berriro egon

gara zuzendaritzarekin, eta pertsonalari eta gerturatzeko den erabiltzaileari kobratzeko asmoa dute». Asmo hori ez dutela onartzen salatu dute. Atzo bezala, asteazkenero egingo dituzte mobilizazioak *Aparkaleku doan baten alde* lelopean. I.T.



## Arriolak herriko proiektuak bisitatu ditu

**TOLOSA** ■ Iñaki Arriola PSE-Eeren Gipuzkoako idazkari nagusia izan zen atzo Tolosa, Espainiako Gobernu bultzatzen ari den proiektuak bertatik bertara ikusteko. Lehendabizi Usabal kiroldegian izan ziren Txirriindulartzaren Teknifikazio Zentroa ikusten. Ondoren, To.Pic, Txotxongiloen Nazioarteko Zentroa izango dena, bideratu ziren. Arriolaren esanetan, «biaki ere, proiektu garrantzitsuak dira, eta argi dugu inbertsio onak ari garela egiten». E.E.

## Sabino Etxeberria izan da Urdina Txikiko xake txapelketan irabazlea

**Tolosa** ■ Eskualdeko 24 jokalarik hartu zuten parte; bigarren Iñaki Etxeberria izan zen, eta Txus Aginaga geratu zen hirugarren.



Urdinako txapelketaren une bat. HITZA

### ERREDAKZIOA

Igandean Urdina Txiki elkarteak xake txapelketa jokatu zuten. Eskualde osoko 24 jokalarik hartu zuten parte, eta Sabino Etxeberria tolosarra izan zen irabazlea.

Xake azkar erara jokatu zen, lehendabizi bi talderen arteko liga eginez eta ondoren bi taldeak partida bakarrera gurutzatuz. Etxeberria geratu zen lehena, partida guztiak irabazita; bigarren Iñaki Etxeberria izan zen. «Harakin tolosar ezagun hau» askotan izan da Gipuzkoako txapeldu eta maila

altuarekin jarraitzen duela erakutsi zuen beste behin.

Hirugarren Txus Aginaga nafarra izan zen. Urdina Txiki elkartearekin duen lotura dela eta, ez du hutsik egiten urteroko txapelketa honetan eta beti goiko postuetan amaitzen du. Bestalde, jokalaria gazteen arteko lehenentzako saria Aitor Villena billabonatarrek irabazi zuen.

## Bide Bide Ibizak Club Natacion Pamplonaren aurka irabazi du

**Tolosa** ■ Bost baja izan zituzten tolosarrek, baina, maila ona erakutsi zuten; hurrengo Ardoi nafarren aurka jokatuko dute.

### ERREDAKZIOA

Bide Bide Ibiza talde tolosarrak baja ugari izan arren, garaipen garrantzitsua lortu zuen Iruñean, Club Natacion Pamplona taldearen aurka, 80-89ko emaitzarekin.

Tolosarrek joko maila bikaina erakutsi zuten, eta hori Kaiet, Mikel Txiki, Iñigo, Kike eta Haritzen baja izan zutelako kontuan hartuta. Hala, zazpi senior eta hiru jubenilek osatu zuten deialdia. Mendilu, Aza eta Julen izan ziren Iruñako partiduan. Azpimarratzekoa da gaztetxo hauen inplikazioa eta partidaren erakutsi zuten heldutasuna.

Aurrean zegoen aurkaria Club Natacion Pamplona izan zen. Ohitura handiko taldea eta etxean sendotasun izugarria adierazten dute. Beraz, ez zen partidu erraza tolosarrentzat. Partidaren hasiera, ordea, oso ona izan zen Bide Bide-entzat, 3-1ko partziala egin baitzuten. Baina etxekoan taulapeko lanak partida segituan alderatu zuten 15-11 markagailuan jarri arte. Etxekoek beraien errotik inposatu zuten, partidaren jauna etajabe bihurtuz. Lehen laurdenaren amaieran 22-16 jarri ziren.

Bigarren laurdenean gauzak okertuz joan ziren 12 puntuko desabantaila edukitzerara iritsi zirelarik. Orduan, Mendiluk 8 puntu saskiratzea lortu zuen eta aldeak murrizteko parada eman zion tolosar taldeari. Kontraeraso argiak lortu ziren Martia eta Goaren lapurreteie esker atsedenaldira aurritik iristeko.

Atsedenaldira eta gero Martiaren saskiratze garrantzitsuei esker aldea 14 puntutaraino igo zen. Etxekoek, baina, kanpoko jaurtiketeie esker berriro ere partidaren mantentzea lortu zuten. Bitartean, Goarek jaurtiketa librean eremutik lasaitasuna eman zion taldeari, azken laurdenera aurretik joanez. Hemen, etxekoek aldeko partzial batekin eta epaileak Goar eta Martiari pitatutako teknikei esker CNPkoek aldea murriztea lortu zuten. Baina, etxekoek eginiko presioa erraz haustea lortu zuten eta horrela amaierako diferentzia handitu zuten tolosarrek.

Garaipen garrantzitsua eta moral handia emango diona, beraz, Bide Bide Ibizarentzat. Hurrengo partida Ardoi talde nafararen aurka izango dute Usabalen. Taldeak emaitza onekin jarraitzea espero du eta lider moduen beste astebete egotea.

## Hondarribiaren aurka galdu arren, Tolosa lehen postuan

### Iragarki laburrak

#### SALGAI

■ **Etxebizitza.** Voith Gorostidi eremuko lehenengo fasean. 2 logela, 2 komun, terraza zabala, sukualdea, egongela, garajea eta trastelekua. 300.000 euro (BEZ barne). Negoziatzeko prest. Interesatuak deitu: 657 70 05 68.

### ERREDAKZIOA

Lurreldekako preferente mailako Tolosa futbol taldeak lehen postuan jarraitzen du azken partida, Hondarribiaren aurkakoa, 0-3 galdu arren.

Tolosak ez zuen partida ona egin Berazubiko zelaian Hondarribia taldearen aurka, eta emaitzak ongi irudikatzen du hori, sartu ziren golak aurkariak egin baitzituzten. Hauek, hondarribiatarrek tolosarrek egingako hutsak

baliatu zituzten, eta horrela iritsi zen lehen gola —nahiko eztabaidatua, jokoz kanpo zegoela jokalaria adierazi zuten tolosarrek— 61. minutuan, Cervantesen eskutik. Bigarrena 81. minutuan sartu zuen Elzok, eta azken gola, hirugarrena, 91. minutuan Cervantesek egin zuen.

Asteburu honetako partida etxetik kanpo jokatuko dute tolosarrek. Aurrera taldea izango dute aurkari.

## Bi adingabe atxilotu dituzte lapurtutako ibilgailuan joateagatik

### ERREDAKZIOA

16 urteko bi adingabe atxilotu zituen atzo goizaldean Ertzaizantzak, lapurtutako turismo batean zihozela harrapatu zituztenean.

02:30 ak aldera, herritarren segurtasunerako patruila batek turismo bat ikusi zuen baserri arteko bide batean, Asteasun. Salaketa baten arabera, astelehen arratsaldean Aian lapurtutako ibilgailu bat

zela jakinarazi zieten. Autoa geldiarazi zuten, eta bertatik korrika ihes egin zuten hiru lagunek; ibilgailuan zihozaren beste bi lagunak harrapatu, eta jarrera oldarkorra izan zutela azaldu zuten agenteek. Polizia egoitzara eraman zituzten atxilotuta, eta epailearen esku utziko dituzte. Bitartean, ikertzen jarraitzen dute ihes egin duten hiru lagunak identifikatzeko.

## 'Aleksandra' filma izango da ikusgai gaur, Zine Forumaren eskutik

**Tolosa** » Alexander Sokurov-en filma Txetxeniar gerra kanpamendu batean dago kokatua.

### ERREDAKZIOA

Gaur, Zine Forumaren eskutik, Alexander Sokurov-en *Aleksandra* filma izango da ikusgai Leidor antzokian. Ohikoa den bezala, lehen saioa 19:15ean izango da, eta bigarrena, 21:45ean.

Aleksandra Nikolaeвна, filmaren protagonista, hirurogeita hamar urteko emakumea da. Bilobarri bisitan joango zaio, eta hau, gerra kanpaleku batean, Txetxenian, bizi den ofizial gaztea da. Bisitatzeraz joandakoan, Aleksandra konturatuko da etxeko altzarien ordez gerrako kanteak daudela.

Amona-biloben arteko elkarrizketak eta kanpalekuan edo herriko merkatuan dituenak filmatzen ditu Sekurov-ek: aurpegiak, isiltasunak, eta begiradak barne.

# Hil honetan, Babarrunaren Festa eta Titirijai izango dira



Txotxongiloen Nazioarteko Jaialdia hilaren 29an hasiko da; emanaldiek in batera ikusgai izango dira erakusketa ere. I. T.

**Kultura** » Urteroko bi jaialdi horiez gain, Mundua Tolosan zikloaren baitan, beste bi emanaldi izango dira datozen asteetan.

### ERREDAKZIOA

Eguraldi txarrari eta hotzari aurpegi jarri behar zaiola dio esatera zaharrak, eta honetarako, zer hobe, kalera ateratzea. Hori aurre egiten laguntzeko asmoz, hainbat ekitaldi eta jarduerak izango dira hilabete honetan zehar Tolosan.

Abesbatzen Nazioarteko Txapelketarekin sartu gara urteko azken aurreko hilabetera, eta Nazioarteko Txotxongilo Jaialdiarekin emango diogu amaiera. Honez gain, eskualdean nahiz kanpoan izen handia duen beste ekimen bat ere emango da aurrera, Babarrunaren Festa hain zuzen ere. Hau, hilaren 19tik 23ra bitartean ospatuko da. Mundua Tolosan zikloaren baitan ere, beste bi emanaldi izango dira. Lehendabizikoa aste honetan bertan izango da, Kroke musikariarena. Bestea kberri, ukitu exotikoa izango du, Bellydance Superstars etorriko baitira, beraien dantza orientalak erakusteko asmoz.

Bonberenean berriz, hilabete honetan, musika doinuak entzuteaz gain, antzerki saioak ere izango dira.

### Aranburu Jauregia

■ **Jose Luis Urdanpilleta.** *Fotografia 5* argazki erakusketa ikusgai izango da hilaren 8ra bitarte.

■ **Vanessa Alzate.** Pintura, eskultura, grabatu eta collageak aurkitu daitezke hilaren 15a bitartean jarrita egongo den erakusketan.

■ **Txotxongilo jaialdiko erakusketa.** *Enusaria Leihoa* izenburupean, ikusgai izango da hilaren 29tik abenduaren 8ra.

### Kultur Etxea

■ **La Risa Inteligenteren hitzaldia.** *Aprender a reir es aprender a vivir* izeneko hitzaldia eskainiko dute gaur, 20:00etan.

■ **'Meditazioaren boterea: orain eta hemen bizi'.** Yoga elkarteak antolatuta du hitzaldia. Etzi izango da eta 20:00etan hasiko da.

■ **Formazio topaketak.** Osalatek antolatuta, hilaren 15ean izango dira. Informazio gehiago [www.osalatek.com](http://www.osalatek.com) helbidean aurkitu daitezke.

■ **Odol ateratzea.** Hilaren 17an izango da odol emaleen hileroko hitzordua. 18:00etatik aurrera.

■ **EHUren jardunaldi informatiboa.** 18:00etatik aurrera izango da.

■ **Odol ateratzea.** Hilaren 17an izango da odol emaleen hileroko hitzordua. 18:00etatik aurrera.

■ **Garraxi ixila.** Lasarteko Landaberri Antzerki Eskolako emanaldia hilaren 28an izango da 17:30etik aurrera. Galtzaundi eta TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZAK antolatuta, Aranzadi Zientzia elkartearen laguntzarekin. Gerra zibilaren inguruko ekimenak.

### Leidor antzokia

■ **Kroke.** *Seventh Trip* kontzertua eskainiko du etzi. Mundua Tolosan zikloaren baitan. 20:30 hasiko da emanaldia.

■ **'El hombre de rojo'.** Algara antzerki taldearen emanaldia hilaren 14an izango da. Minbiziaren aurkako elkartearen alde antolatuta ekimena da. 22:00etan hasiko da.

■ **'Babelesque'.** Belludance superstars-en dantza oriental ikusizuna izango da hilaren 15ean. Mundua Tolosan zikloaren baitan izango da hau.

■ **'Sua'.** Alurr dantza taldeak bere azken ikuskizuna estreinatuko du hilaren 16an. 19:30ean hasiko da emanaldia.

### Kultura gorraren jardunaldiak.

Gainditzen elkarteak antolatuta ditu eta hilaren 21etik 22ra bitartean izango dira.

■ **Titirijai 08.** Nazioarteko Txotxongilo jaialdia ospatuko da hilaren 29tik abenduaren 8ra bitartean. Tolosako Ekinbide Etxeak antolatzen du hau.

### Bonberenea

■ **'Un encuentro especial' eta 'Orden cotidiano'.** Bihar, 22:30etik aurrera izango dira ikusgai bi antzerki hauek. Lehendabizikoa Bat eta bi antzerki taldeak eskainiko du, eta bigarrena, Suyanemak.

■ **'La mochila' eta 'En el aire'.** Etzi, 22:30etik aurrera izango dira ikusgai bi antzerki hauek. Lehendabizikoa Hernanikoa taldeak antzertuko du, eta bigarrena, Escapada en solitario taldeak.

■ **Dikers eta Raizdx.** Hilaren 15ean bi talde hauek ariko dira Bonberenean, 22:30etik aurrera, hautsak astintzen.

### Besterik

■ **Trikujai diskojaia.** Beotibar pilotalekuan izango da hilaren 15ean, 22:00etatik 05:00etara bitartean.

■ **Gazte Topagunearen urtemuga festa.** Hilaren 13, 14 eta 15ean ospatuko dute.

■ **Miriam Mendoza ipuin kontalaria.** Ipuin txokoa izango da *Gurasoak ere ipuin kontari* izenpean Errotako Haur Liburutegian.

■ **Tolosako Babarrunaren Astea.** Hilaren 19tik 23ra bitartean izango da.

■ **Liburu azoka.** San Frantzisko pasealekuan izango da hilaren 21etik 30era bitartean.

■ **Zine Maratoia.** Gazteria sailak antolatuta, Leidorren izango da hilaren 22an, 21:30etik 03:00etara.

■ **World Kafea.** Zerkausan izango da hilaren 28an, 19:00etatik aurrera. Tolosa 2015ek antolatutako kafe hizketaldia da hau.

## Laburrak

### Jai batzordearen bilera TEEn egoitzan izango da

**TOLOSA** » Jai batzordeak bilera deitu du gaur 19:00etarako. Hau udal-etxeko batzar aretoan izan beharrean, Tolosako Ekinbide Etxean izango da. Jorratuko den gaia ondorengoak izango da: Inauteriak eta kolektorearen obra. Bileran Udaleko hainbat kargu politiko eta teknikariak izango dira, dagoeneko hasita dagoen kolektorearen obraren nondik norakoak azaltzeko eta datozen Inauterietan obra dela-eta zein izango den egoera azaltzeko. Honen inguruan eztabaidatuko da, irtenbidea aurkitzeko asmoz.

### Presoen senideek, diru laguntzak eskatzeko aukera

**TOLOSA** » Gipuzkoatik kanpoko kartzeletan dauden presoei beren familiakoek egiten dizkieten bisitek sortzen dituzten gastuei aurre egiteko asmoz, diru laguntzak emango ditu aurren ere Tolosako Udalak. Honenbestez, interesatuek gizarte zerbitzuetan eskaerak aurkezteko epea hilaren 28an amaituko da.

### Txuletaren Festarako txartelak salgai daude jada

**TOLOSA** » Txuletaren Festarako erreserbak egiteko epea gaur irekiko da. Afariak abenduaren 5etik 7ra bitartean zerbitzatuko dira eta bazkariak, 6, 7 eta 8an. Prezioa, iaz bezala 40 eurokoa da. Izena emateko bi aukera daude, alde batetik, 943 69 74 13 telefono zenbakaria deituta, eta bestetik, [tour@tolosaldea.net](mailto:tour@tolosaldea.net) helbidera mezu bidalita.

### Batzar informatiboa bihar, 19:30ean, herriko plazan

**IBARRA** » Gazte ibartar bat atxilotzeko arriskuan aurkitzen dela adierazi dute, eta horren ondorioz ezker abertzaleak batzar informatibora deitu ditu biharoko herriarrak. 19:30ean izango da Ibarako plazan, eta gertaeraren nondik norakoak azalduko dituztela bertan esan dute.

### Haurrentzako txangoa antolatu du Alpino Uzturrek

**TOLOSA** » Alpino Uzturre mendi elkarteak, bere 50. urteurrenoko ekitaldien baitan, haurrentzako mendibildia antolatu du igande honetarako. Bilaldia 09:00etan abiatuko da Tolosako Zerkausitik, eta hau Uzturre inguruan izango da. Berrito Zerkausira itzultzeko eguerdirako. Lau ordu inguruko ibilbidea kalkulatu dute antolatzaileek, eta 8-12 urteko haurrentzat dago zuzendua. Hala ere, gurasoek hartu dezakete parte ekintza honetan. Izen-ematea, ikastetxeen bidez edo [alpinouzturre@hotmail.com](mailto:alpinouzturre@hotmail.com) helbidean egin daitezke, bihar arte.

## Telefonoak Larrialdia. ((112))

### OSASUNA.

**Alegialdea.** Osasun z: 943 653212

**Anoeta-Alkiza-Hernialde.**

Medikua: 943 65 23 39

**Asteasu.** Medikua: 943 692423

**Ballarain.** Medikua: 943 889003

**Berastegi-Elduain.**

Medikua: 943 683361

**Bidegoian.** Medikua: 943 681134

**Ibarraldea.** Osasun etxea: 943 672411

**Ikaztegieta.** Medikua: 943 653329

**Irura.** Osasun zentroa: 943 690720

**Leitza.** Osasun z: 948 510800

**Orendain.** Medikua: 943 655595

**Orexa.** Medikua: 943 682228

### Tolosa.

**Anbulatorioa, larrialdia:** 943 461111

**San Esteban:** 943 006800

**Gernikako arbola:** 943 006900

**Amarozko dispen:** 943 672637

**Asuncion klinika:** 943 675799 -

943 67 53 90 (larrialdia)

**DYA:** 943 672536

**Gurutze Gorria:** 943 674888

**Villabona.** Anbulat: 943 006970

**Zizurkil.** Aiztondo zerb: 943 693930

### GARRAIOAK.

**Renfe:** 902 24 02 02

**Donostiako autobusa:** 943 361740

**Tolosalde bus:** 943 650621

**Leitzarain autob.**: 948 221015

**Taxia:** 943 670420

**Taxia (Leitza):** 608 873016

### BESTERIK.

**Ertzaintza:** 943 538820

**Tolosa-Udaltzaingoa:** 943 675858

**Tolargi:** 943 650016

**Iurramendi egoitza:** 943 670325

**Tolosa gasa:** 943 675320

E | **Elkarrizketa****JOSE LUIS REBORDINOS** ▶ Donostiako Beldurrezko Zinemaren Asteko zuzendaria

# «Jaialdiak jende gaztea erakartzen du proiektioetara»

**Gaztelu** ▶ Donostian urtero fantasiako eta beldurrezko zinemari eskaintzen dioten jaialdiko zuzendaria Gaztelun bizi da azken urteetan.

REBEKA CALVO

Donostian jaiotakoa da, gaztaroa Erreterian eman zuen eta urte batzuetan Donostian bizi eta gero orain zazpi urtetik Gaztelun du operazio-basea, zine bobina, kartel eta bitxikeria ugariren artean. Jose Luis Rebordinos zinemazale amorratuzat du bere burua. Bizitzak ematen dituen birak direla eta fantasiako eta beldurrezko zinemaren espezializatu da, hala ere. Donostiako Fantasiako eta Beldurrezko Zinemaren Asteko zuzendaria lanpetuta topatu dugu, pasa den urriaren 31tik larunbata bitarte irauten duen jaialdian ari da buru belarri, baina kontentu, «aspaldian ikusi gabeko lagun asko ikusteko aukera ere» badu eta.

**Azken urtean lanean ibili zara jaialdia antolatzen eta ekintza guztiak lotzen. Sukaldeko lan guztia eginda nola bizi du zuzendaria jaialdia?**

Jaialdiko egunak iristen direnean tentsioa izaten dira, lan handiko egunak. Baina, bestalde poztasun garaia ere izaten da. Urte osoan zehar jaialdia diseinatzen, buruan irudikatzen, eman eta gero jaialdia iritsi baino lehenagoko hamabost egun horiek izaten dira okerrenak; jaialdiak antolatzen ibiltzen garenok beti esaten dugu azken hamabost egunak iristen direnean ezin dela ezer hobetu, okertu besterik ez dela egingo. Horrexegatik nahi izaten dugu jaialdian buru belarri sartuta gauden egun horiek iristea, behin makineria guztia hasi denean asko disfrutatzen da eta. Lan asko egiten dut, ez dut ia lorik egiten, oso nekagarria da, baina aldi berean asko disfrutatzen dut. Urtean behin ikusten ditudan pertsonekin egoteko aukera izaten dut. Tomoo Haraguchi zuzendari japoniarrarekin, esaterako, bost urte eta gero ikusi gara berriz ere.

**Zinemazalea zara, batez ere, geroz haratago.**

Ni 19 urterekin jaialdi hau sortu zuen taldeko partaide nintzen. Erreterian zine-klubean ere egin genuen horrelako zerbait, baina hala ere, ez naiz zinema

mota honetako jarraitzailea bakarrik, niri zinema gustatzen zait, orokorrean. Baina proiektiotara jende gaztea erakartzeko modua era honetako jaialdia antolatzea zela ikusi genuen, eta horregatik nabil buru belarri fantasiako eta beldurrezko zinemarekin lanean. **Batez ere, ikusle goa gaztea duzue, beraz.**

Komertzialak ez diren pelikulen proiektioetan 30 eta 40 urte inguruko jendea gerturatzeko zela ikusi genuen eta horregatik pentsatu genuen nerabeak zinemara erakartzeko zinema mota hau bultzatu behar genuela.

**Donostiako Fantasiako eta Beldurrezko Zinemaren Astea larunbatean bukatuko da, oraindik badugu beraz zer ikusi. Zer gomendatzen diguzu?**

Oraindik ere badago bai zer ikustekoa. Zerbait azpimarratzekotan nik *Martyrs* filmaren proiektioa azpimarratuko nuke. Polemika handia sortu duen pelikula da, izan ere, muturreko indarkeria ikusi daiteke bertan, baina era berean jaialdi askotan ikusi ahal izan da hilabete gutxi batzuetan eta harreara oso ona izan du. Oraindik ere espainian ikusi ez den film bat ere ikusi ahal izango dugu; Dario Argentoren *La terza madre*. Bihar gauean, gainera, Frank Henenlotter zuzendariari omenaldia egingo diogu. Henenlotter, batez ere, 70. eta 80. hamarkadako zinemagizona da eta urte askotan filmarik egin gabe egon ostean aurten beste film bat egin du eta guk ikusi ahal

**Urtean behin ikusten ditudan pertsonekin egoteko aukera ematen dit jaialdiak**

izango dugu lehen aldiz Espainian. Oso gau eroa izango da, jaialdiko mementorik eroena, behar bada. Bukatzeko, larunbatean, 17:30ean Victoria Eugeniaren, eskainiko dugun zinema mutuko *The Lost World* aipatu nahi dut, zuzeneko musikarekin ikusi ahal izango dugutena.



JUAN CARLOS RUIZ/ARGAZKI PRESS

**Urteroko moduan, hortaz, pelikula bakarrik eskaintzeaz gain, ekintza paralelo ugari ere antolatu dituzue...**

Horrela da bai, erakusketak, mahainguruak... ere antolatu ohi ditugu. Zentzu honetan, larunbatean Kursalean egingo dugun ekintza azpimarratuko nuke. Sarrera doakoa izango da eta bertan 12:00etan *Olentzero eta oparien ordua* ikusi ahal izango da estreinako aldiz eta 17:00etan ere umeentzako beste film bat eskainiko dugu: *Cher Ami*. Bi emanaldi hauek baino orduerdi lehenago, gainera, Lume taldeak kale antzerkia eskainiko du Kursal kanpoan. Donostian zehar sei erakusketak ikusi daitezke ere. Nik bereziki Alde Zaharreko Liburutegi zaharrean (San Jeronimo kalean) dagoena gomendatuko nuke. Bertan aipatutako Tomoo Haraguchi laguna da protagonista. Zuzendari eta makillaje efektu berezietan espezialista da eta bere lanean lagin adierazgarria ikusteko aukera dugu Donostian. Munstro-

ak, maskarak, buruak... eta nipondar bikainaren lehenbiziko otso-gizonetako bat. Oso interesgarria da eta umeek oso gustura bisitatzeko dute.

**Seguru haurrak gu baino gutxiago ikaritzen direla era honetako munstroak ikusita...**

Zalantza gabe, ez die beldurrik ematen, alderantziz, oso gustura ikusten dute eta segituan ukitu nahi dituzte pertsonaia guztiak.

**Film laburrak zein 'Millennium Actress' eta 'Dejame Entrar' ikusi ahal izango dira Tolosan**

**Tolosan ere maratoia egingo duzue Leidor aretoan hilaren 22an 21:30etik aurrera, orain urte dezente ere egin zen, nahiz eta ondoren ez zaion jarraipenik eman, zer ikusi ahal izango dugu?** Azken hamar urteetan egin diren euskal film labor onenetatik zortzi jarriko ditugu, jaialdian iku-

si ahal izan ez ditugunak. Animeko Satoshi Konren *Millennium Actress* filma ere ikusi ahal izango da euskarazko azpigitulekin eta bukatzeko *Dejame entrar* filma eskainiko dugu, 2008ko Europako fantasiako zinemaren Film Onenaren saria eskuratu zuena. Tomas Alfredsonen film honetan banpiroa den ume bat da protagonista, baina gai sakonagoak jorratzen ditu; bakardadea, gizarte honetara egokitzeko zailtasunak... Espero dut datozen urteetan ere Gipuzkoako herri desberdinetan horrelakoak egin jarraitzeko aukera izatea.

**Orain zazpi urtetik bizi zara Gaztelun, paraje ederra benetan, filmak grabatzeko egokiak al dira bertako inguruak?**

Azkenaldian egin dira, bi oker ez banago. Horieta bat, gainera, frantsesa dena, datorren urtean ikusi ahal izango da. Oso inguru polita da eta bertako parajeak oso zinematografikoak dira.

## Laburrak

### Bihar, Bidegoianen kadeteen mailako partidak

**PILOTA** ● Bihar Aurrera Saiaz pilota eskolako kadete mailako hiru partida Bidegoianen jokatu dituzte, Probintzialeko ligan. 19:00etan Zelaia-Elustondo Behar Zanakoen kontra ariko dira; ondoren Balerdi-Arregi eta Zazpi-Ilturrikoak ariko dira eta bukatzeko, Aranalde-Labaka Mundarrokoekin lehiatuko dira. Ibarren, jubenilen norgehiagoka bat izango da: Mattin-Arratibel Ernioeren kontra ariko dira 19:00etan hasita.

### XVIII. Herri Kroseko zehaztasun batzuk

**IKAZTEGIETA** ● Hilaren 16an Ikaztegietak XVIII. Herri Krosa izango da eta dagoeneko izen-emate epea zabalik dago. [www.herrikroσα.com](http://www.herrikroसा.com) webgunearen bidez eman daiteke izena 6 euroren truke. Bestela egunean bertan, korrika egin baino ordubete lehenago gutxienez. Herrigintza elkarteak antolatua da lasterketa hau, eta dagoeneko 43 lagunek eman dute izena Internet bidez. Ekitaldi hau Ikaztegietak *Udazken Kulturalaren* baitan dago.

### 'Udazkenean Kultura', gaur eta igandean

**ALEGIA** ● *Udazkenean Kultura* antolatuta dute Alegian. Aste honetan, gaur zehazki 18:30ean Kultur Etxean *Komikien sorkuntza* izeneko hitzaldia izango da Joseba Antxustegietxarteren eskutik. Igandean, berriz, 11:00etan ginkana prestatu dute Langaurre txirindulari elkar-tekoek, eta haurrentzat aproposa da Larraitz auzoan izango diren proba eta jokua.

### Zazpi-Ilturri pilota eskolako hainbat emaitza

**AMEZKETA** ● Amezetako Zazpi-Ilturri pilota eskolako emaitzak asteberu honetan hauek izan dira: kadete eta seniorren mailan binaka etxean irabazi egin zuten 22-6 Azkoitikoaren kontra eta 22-11 (honetan aurkaria Zazpi-Ilturriko bikotea zen). Seniorren mailako beste partidari Ilunperekin aritu zen eta ez zuen zorte bera izan, 4-22 galdu baitzuen, eta Aurrera-Saiazen aurka, 10-22. Jaka lizar-zarrak kadeteen mailan 18-12 irabazi zion Alegiako Intxurre pilota eskolako Artolari.

### Encarna Megiaren margolanak igandera arte

**ALEGIA** ● Alegiako jubilatuen tabernan Encarna Megiaren margolanak daude ikusgai, baina aste hau izango da azkenekoa. Megiaren erakusketan deigarriena koloreak dira: bizi-bizikiak eta konbinazio politak lortuta. Hauek ikusteko eta erosi ahal izateko azken eguna igandea da.



Ezkerrean Albitzuri Haundi harria. Luis Telleria Altzi harria Aralarren altzatzen, 2004. urtean. N. URBIZU / HITZA



Aimar Irigoien harri-jasotzailea Amezetan izango da igandean, Kultur Hamabostaldiaren baitan eta tartean, Albitzuri Haundi harriaren bere 16 urteko marka hobetzen saiatuko da; 5 harri-zulataile talde ere izango dira.

# Harri berezienak plazan

## ERREDAKZIOA

**H**erri kirolen presentzia handia izan da Euskal Herrian eta gaur egun ere, askok indar handiarekin heltzen diote honi. Igandean, kasu, eta Kultur Hamabostaldiaren baitan harri-jasotzaile eta harri-zulataileak batuko dira Amezetan. Aimar Irigoienek bi erronkari ertsiko die Amezetan: Errezilgo kargajasotzaileak Albitzuri Haundi eta Antziko Harria deituak jasotzeko ahalegina egingo du plazan. Azkenaldi honetan sasoko dabilela erakutsi du eta bi harritzar horiekin neurtu nahi du bere burua. 13:00a aldera hasiko da proba.

### Albitzuri Haundi harria

Euskal Herrian ezagutu den harri-rik ezagunenen artean aurkitzen da Albitzuri Haundi. 1948az geroztik indartsu gehienak ahalegin-du dira bere zailtasunak gainditzen, ez baita karratua, eta nondik heldu ere komeria izaten da. Irigoien lehenengo aldia ez da izango: 2004ko abuztuaren 24an izan zen lehen aldia eta 16 urte zituen. Orduan lau jasoaldi eman zizkion Albitzuriko harriari. «Jendea guztiz harriturik utzi zuen orduan: ez ote zuen urte askorako marka utzi bere 16 urtetan?» Orain marka berria ezartzen saiatuko da.

Gaurko Aimar «askoz eginagoa dago, nola eskarmentuz ala indarrez». Halere, «ez da berari erosen gertatzen zaion harria. Albitzuri-Haundik indarraz gainera, besok ere luzeak eskatzen ditu, behar bezala heltzeko». Horregatik dio Aimarrek begirune handia diola harri honi.

Albitzuri Haundi eta Altzi harri hauek ikusteaz gain, Ugarteko ha-



Altzoko jaietan harri-zulataileak izan ziren, tartean profesionalak: Altzoko hirikote bat ere aritu zen. Amezetan ere Altzoko taldetxo bat ariko da. HITZA

rria ere izango da plazan. Hau, «Artola harri-jasotzaileak bizkar gaineraigotzen zuten». 200 kiloko da eta espreski altzatzeko prestatua dagoen harria da. «Artolaren anaia Udalar eskaini zion harria eta orain udaletxean utziko dugu».

### Antziko harria

Lehendabizikoz ikusiko ahal izango da harri hau Amezetako plazan. Oraindik orain, jaitsi dute Aralar-ko Aintzegi deitutako parajetik: Pardeluts iturritik oso hurbil dago paraje hau. Hantxe egon da XX. mende osoan harria.

Harri honek oso istorio bitxia du: «Amezetan ez ezik, Aralarren ere neurtzen zituzten beren indarrak. Antziko harria izaten zuten neurgailua». Asko eta asko izan dira bizkarrean igotzen saiatutakoak. «Ez da pisu handikoa, 140

## » IGANDEKO EGITARAUA

### Harri Festa

- **13:00.** Herriko frontoian Aimar Irigoien eta harri-zulataileak: Bizkaiko Arboleda eta Gipuzkoako Altzo eta Amezketa taldeak.
- **Lehenengo.** Irigoien Antziko harriarekin 3 minutuko erakustaldia.
- **Ondoren.** Arboleda, Altzo eta Amezketa taldeak 20 minutuan nork zulo gehiago egin.
- **Jarraian.** Irigoien Albitzuri Haundi harriarekin berak 16 urterekin lortutakoa hobetzen saiatuko da.
- **Agurra.** 100 kiloko bolarekin erakustaldia.

asko sufritzen baitu, eta zartatzen hasi da. Hautsi aurretik, gordetzea nahiago dugu».

### 5 hirikote, harri-zulataile

Jaialdiak osagarri gehiago ere izango du. Besteak beste, barrenariak edo harri-zulataileak. Amezetako hirikote bat, Altzoko beste bat, Bizkaiko bi hirikote eta Hondarribiko beste bat ariko dira. Burni pusketak bat duen gizon batek golpe jarriak emanaz lurrean dagoen harri bati zuloak egiten dizkio. Gintzet edo dinamita kartutxo bat sartzeko lain zuloa egin behar dio. Harrobiegan lana egiten zuten harri-zulataileetatik datorenen lehia da.

Nork zuloa azkarrago egin edo nork denbora jakin batean zuloa handiagoa egin apustua egiten da. Teknika «oso erraza» da; harri-zulataileak harriaren gainera igo edo bestela harria lurrean barnatzen da, baldosa baten gisa. Harri-zulataileak, zutik, burni pusketak bat eskuan hartu (10-20 kiloko pisuaz) eta soilik bere indarrez baliaturik mailu neumatiko baten lana egiten du apustuan definitu ziren ezaugarrietako zuloa lortu arte.

Baldintza hauetan, harri-zulataileak harria labaintzeko (ura edo olio) laguntza edukiko duen hala ez ere erabakitzen da. Amezetan, 20 minuturen baitan 10 zentimetroko sakonera zulo gehien egiten duen taldea izango da irabazlea.

XX. mende erdiraldera arte, leihaketa hauek plazetan oso ezagunak izan ziren, batez ere Azkoitia eta Azpeitia inguruan. Gaur egun ikustea oso zaila da, ez bada herriko festa batzuetan erakustaldi gisa egiten.



Alurr dantza taldea Ibarra jaietan eskainitako emanaldian. HITZA

## «Garai bateko emakume aurrerakoien» erretratua, Alurren dantzen eskutik

**Ibarra** » Hilaren 16an aurkeztuko dute Leidorren 'Sua' lana; ia sarrera guztiak saldu dituzte; 80 bat bakarrik geratzen dira.

REBEKA CALVO

Sua irudikatzen duen dantza talde batek emango dio hasiera Ibarra Alurr dantza taldearen lan berriari, hain justu, *Sua* bezala batailatuta dutena. Ondoren, hamairu koreografiek hartuko dute eszenatokia; bata bestearen atzetik, jarraian, historio bat kontatuko digute ibarretarrek berrikuntzekin hornitutako euskal dantzen bidez. 1.609. urtean Lapurdin gertatutakoaren berri emango digutelarik.

*Sua* Alurren ikuskizun berria da, «proiektu propioa», taldeko arduradunak, Eli Nosellasek, herenean azaldu zuenez. «Hasieratik izan genuen argi; *Sua* gure proiektua izan behar zuen, herriko dantza talde bat gara eta alde horretatik egin dugun lana baloratzea besterik ez dugu espero».

*Sua*-k jauntxoan, herri xehearen eta sorginen istorioekin amesteko bidea emango du, baina ez pentsa sorginen irudi tipikoari hel-

du diotenik, haratago joan dira Alurrekoak eta «garai hartako emakume aurrerakoia» erakutsiko dituzte, sorginen beste irudi bat eskaini nahi izan dute-eta. Ordu bete inguru irauten duen ikuskizuneari jantziek ere berebiziko garrantzia dute. Izan ere, herri xehearen edota jauntxoaren txanda helurtzen denean, ikuslea jantzi eta dantza moten bidez konturatuko da zeinetaz ari diren.

Berrikuntza, hortaz, sorkuntzan datza. Izan ere, oraingoan istorio bat kontatuko dute Alurreko 18 dantzariak, eta horrek sorkuntza lana ere eskatu dio dantza taldeari. «Estiloa bera da, euskal dantzetan oinarritzen gara, baina oraingoan koreografiek lotura dute euren artean, historio bat kontatzen baitugu», esan zuen Alurreko dantzarietako batek, Miren Barberiak.

### Sorkuntza lana

Gainera, sorkuntza lana, «nekagarria» izan da taldekideentzat. Zazpi hilabeteetan Ibarra Eneko Haritza taldearen izen bereko filmaren gainean egin dute lan: «Filmaren gidoa hartu eta zazpi hilabeteetan filmeko lan taldearekin bildu ginen. Hasieran gauza des-

berdinak egiten saiatu ginen, baina azkenean gurea dantza dela ondorioztatu genuen, eta horretan sartu ginen buru belarri», argitu zuen.

*Sua* ikuskizuna eraikitzen hasiterakoan argi zuten bi ideia izango zituztela ardatz: *sua*, «suak ematen duen indarra azpimarratu nahi genuen», eta itxaropena, «guretzako ez baita *sua* itzaltzen, itxaropenari eutsi behar diogu beti, itxaropena zabaldu nahi dugu». Lehenik eta behin, gidoa landu zuten, hortaz, Alurrekoek, ondoren etorri zen musikaren hautaketa —Oreka TX, Kepa Junkera, Javier Tejedor, Alboka eta Tomas San Miguelen doinuak dantzatuko dituzte— eta behin doinua aukeratu dantzen sorkuntzarekin hasi ziren.

### Esperientzia aberasgarria

«Edu Muruamendiarekin eta Katixa Perearen lana azpimarratu nahi ditut eta baita, nola ez, dantza talde osoarena ere. Dantzariak lan handia egin dute», esan zuen dantza taldeko arduradunak. Dantzarietako ere «oso esperientzia aberasgarria» izan da Itziar Doianabalek esan zuenez: «Beti egiten ditugu gure ekarpenak dantzetan, baina oraingoan gehiago laguntzeko eta emateko aukera izan dugu, nahiz eta momentu batzuetan nekagarria izan den».

Muruamendiarekin eta Perearekin batera Nosellasek parte hartu duten guztien lana eskertu zuen. Hori horrela, jantziak egin dituen Ramon Garciaen lana ekarri zuen gogora eta baita arropen konponketak egin dituzten herriko Guraso Elkarteak kideena ere. Kontu teknikoan arduratu dute SEIren eta Asier Izagireraren lana ere azpimarratu zuen.

*Sua* ikuskizuna hilaren 16an estreinatuko dute Tolosako Leidorren 19:30ean. Sarrera ia guztiak saldu dituzte jada.

## AHTren kontrako ekintzak izango dira gaurtik aurrera

**Mobilizazioak** » Ibarra, gaur 19:15ean Gaztetxean, izango dira eta Tolosan, Sanblaspikoko Otsabin, bihar eta larunbatean.

REBEKA CALVO

Abiadura Handiko Trenaren aurkako hainbat ekintza izango da gaur hasi eta larunbata bitarte Ibarra eta Tolosan. Hitzordu hauetako AHTren aurkako ekintzen ikasturteari hasiera emango dio bai Ibarra Elkarlanak eta baita Sanblaspiko Gazte Asanbladak ere. Izan ere, lurjabeen espropiazioak hasi dira jada hainbat lekutan eta horregatik herritarrei informazioa helaraztea ezinbestekotzat jotzen dute.

«Tolosan eragin handia izango du tren berri honek: zarata izugarria, kutsadura elektromagnetikoa, kalte ekologikoak, inpaktu bisuala, akuiferoen suntsiketa, energia kontsumoaren biderkatzea... eta guri hainbat galdera sortzen zaizkigu: zertarako, aurreikuspenen arabera 30 euro inguru kostatuko bada Donostia eta Bilbo arteko bidaia? Norentzako, jakinik balaia guztian geratuko ez dela?», diote Sanblaspiko Gazte Asanbla-

dekoek. Hori horrela, Ibarra Elkarlanak DVD emanaldia eta mahai-guru informatiboa antolatuko du gaurko, 19:15ean hasiko da eta herriko Gaztetxean izango da.

### Hitzaldia, mendi martxa...

Tolosan, berriz, Sanblaspiko Gazte Asanbladak ere ekintzak antolatu ditu bere lokalean, Izaskun auzoko Otsabin, Denak tabernaren ondoan. Bihar, ostirala, hitzaldia izango da 19:00etan, bertan hizlari Ekologistak Martxaneko kide bat eta «kaltetutako» baserritar bat izango direlarik.

Larunbatean, berriz, mendi martxa egingo dute eta parte hartu nahi duenak 10:00etan Tolosako Triangulon egon behar du. 14:00etan bazkaria egingo dute lokalean bertan eta txartelak Denak eta Raku tabernetan daude salgai. Ondoren, 17:30ean, kontzertuak izango dira: Iruneko Eutsi eta Hondarribiko Inoiz Ez taldeena, zehazki.

Era berean, bai Ibarra Elkarlanak eta baita Sanblaspiko Gazte Asanbladak ere ekintza hauetan parte hartzera gonbidatu nahi dituzte herritarrek. Datozen hilabeteetan egingo diren beste hainbat hitzordutan egoteko gonbita ere luzatu nahi izan dute aipatu taldeek.



AHTren aurkako manifestazio izan zen Tolosan dantzariek. ESTI EZEIZA

## Laburrak

### Babarruna eta txerriaren inguruko jaiak, hilaren 16an

**IBARRA** » Hauspibarra Kultur Elkar-  
tea babarruna eta txerriaren inguruan festa antolatuko du datorren igandera, hilak 16, San Bartolome plazan. 12:30ean txerriki desberdinen erakusketa ikusi ahal izango da eta ondoren hauek das-tatzeko aukera ere egongo da. 14:30ean Hauspibarrakoek prestatutako babarrun janaz gozatu ahal izango da, baina horretarako tiketa erosi behar da aldeaz aurretik Zubiaurren, Sendi-Ekintzan, Atariruko Arkaitz-Azpin 15 euroren truke helduek eta 6 euro umeek. Herritar guztiak parte hartzera animatu nahi dituzte elkariek.

### Altuna, Uterga eta Iriarte Galarretan izango dira gaur

**AMEZKETA** » Altuna II.a pilotari amezketarrak, Utergak eta Iriartek osatzen duten hirukotea Hernaniko Galarreta pilotalekuan ariko dira gaur, 17:00etan. Ezkurra eta Urrutiaren aurka. Partidu ederra izango da gaurkoa, izan ere Xanti Uterga aurrelari bikaina da, Altuna II.a kantzako erdialdeko jokalaria aparta eta Txetxu Iriarte ere atzelari oso fina da. Aurkariak, Ezkurra eta Urruti, ere oso lan ona egin dute denboraldi honetan. Ezkurra normalean, goeroa txarragoan egin ohi du lan, baina oraingoan aparteko atzelariarekin arituko da Galarretan, Urrutiarekin, alegia.



EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

# 'La buena nueva' filmaren aurre estreinaldia bihar

**Leitza** » Espainiako Gerra Zibilean kokatzen da filma eta estreinaldi ofiziala hilaren 14ean egongo dute.

## ASIER IMAZ

Helena Taberna zuzendariaren *La buena nueva* filmaren aurre estreinaldia bihar 18:30ean egongo dute Leitzako zinean.

Sarrera guztiak agorturik aurkitzen diren arren, hilaren 14tik aurrera edonon ikusteko aukera egongo da, orduan estreinatuko baitute ofizialki.

## Gerra Zibilaren grabaketak

Helena Tabernaren filmaren hainbat pasarte Leitzan grabatu zituzten 2007. urteko maiatzean, ekainan eta irailean.

Unax Ugalde, Barbara Goenaga eta Guillermo Toledo aktoreez gain, leitzar ugarik hartu zuten parte Espainiako Gerra Zibilean kokatzen den kontakizun honetan. Benetako historia batean inspiratua omen dago Helena Taberna berak eta Andres Martorellek idatziko gidoia.

Esan beharrik ez dago, ikusmin izugarria sortu duela herrian *La buena nueva*-ren aurre estreinaldiak.



Leitzar ugarik hartu zuen *La buena nueva* filmaren grabaketan. PABLO FEO/N.G.

## Euria eta hotza ez dira aitzakia

**IBARRA** » Bai Euskal Herriari eta Haitzetan Raju Mendi taldeak hirugarren mendia irteera burutu zuten iragan igandean. *Euskal Herriaren zehar, geurea ikurrina!* lelopean Lapurdira joan ziren, 3. ikurrina Larrun mendian jarri zutelarik. Eguraldi petrala izan arren, EHNaren aldeko aldarria ere lau haizeetara zabaldu zuten. Irteera honetan «ezusteko polita» izan zuten ibartarrek, izan ere, «Unaiei mito eta kondairekin nazkatzen hasiak ginenean, Senperetik deialdiarekin bat eginaz Josune agertu zitzaigun Larrun gainean. Hurrengo irteeran ere Ipar Euskal Herriko lagunekin topo egitea espero dugu, horretaz gain, herriarrek eta ingurukoak irteera hauetan parte hartzea nahiko genuke». Laugarren irteera Behe Nafarroara egongo dute, otsailaren 15ean. Zehazteko hainbat datu dituztenez, informazio gehiagorako zerbaki bat jarri dute: 652 71 58 00. A.I.



## Leitzako idazleak sarituko dituzte gaur

### A. IMAZ

Altzadi Kultur Elkarteak III. Ipuin edo narrazio lehiaketaren sariak banatuko ditu gaur, 19:00etan Udal Liburutegian.

Lehiaketa 16 urteko gorako herriarrentzat antolatuta zuen Altzadi Kultur Elkarteak. Bertan parte hartu dutenei sariak emateaz gain, narrazio edo ipuinak entzuteko aukera egongo da gaur liburutegian.

## H Hilberria

Tolosaldeko eta Leitzaldeko  
HITZAn jarri  
eta Gipuzkoako beste 4 Hitzetan  
DOAN agertuko da

hilberriak-urteurrenak  
eskertzak

HITZak Gipuzkoan 120.000 irakurle

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen ditugu

tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info  
Tel.: 943-65 56 95

**RITA LARRARTE GARMENDIA**



Izeba izan zaitugu bizilagun eta gero ere ondoan izango zaitugu.

**Larrarte-Otegi sendia**

Hileta elizkizuna GAUR, osteguna, arratsaldeko ZAZPIETAN izango da Zumarragako Asuncion Parrokian.

**ZUMARRAGA**  
2008ko azaroaren 6a

**RITA LARRARTE GARMENDIA**

Herenegun hil zen, Zumarragan, 81 urte zituela

Zenbat lan isil egin zenuen irri leuna galdu gabe fina gorputzez, fina izatez borondatea aldare irakaspenak nahi adina umiltasuna ondare. Ama maitea, amona laztan gure bihotzean zaude.

**Zure sendia**

Hileta: gaur, osteguna, arratsaldeko 7etan, Zumarragako parrokian.  
Oharra: gorpua beilotokian egongo da gaur.

**ZUMARRAGA**  
2008ko azaroaren 6a

## U Urteurrenak

III. urteurrena

**GORKA MANZISIDOR ZIGARAN 'MANTZI'**



2005eko azaroaren 6an hil zen, 28 urte zituela.

Urak dakarrena urak daroa  
Zuk emandakoa gurekin geldituko da

**Etxeokak**

Oharra: Bere aldeko meza izango da azaroaren 9an, 12:00etan, Zestoako parrokian

**ZESTOA**  
2008ko azaroaren 6a

IX. urteurrena

**ALESANDER IRIBAR 'SANDRO'**



III. urteurrena

**GORKA MANZISIDOR 'MANTZI'**



Jatorrak eta pare gabeko mutilak umoretsuak txiste egiten abilak Elkarrekin guztiok ze parranda pila ustekabeaz gazte gazterik hilak etzaituzte ahaztuko gure koadrilak

**Zurrut koadrila**

**ZESTOA**  
2008ko azaroaren 6a



**Argitaratzailea:** Tolosa Herria Hedabideak S.L.  
**Lege Gordailua:** SS-0398-03  
**Zuzendaria:** Noelia Lataburu  
**Egoitza nagusia:** Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.  
**Telefona:** 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18  
**Leitza:** Herriko plaza, 1. 687 410 118  
**E-posta:** tolosaldean@tolosaldeko hitza.info.  
**Webgunea:** www.tolosaldeko hitza.info

**Zuzendariordea:** Iñigo Terradillos. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.  
**Publizitatea:** 661 678 818 tolosaldean\_public@tolosaldeko hitza.info.  
**Tolosa:** 687 410 082-687 410 033. tolosa@tolosaldeko hitza.info.  
**Villabona:** 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko hitza.info.  
**Anoeta:** 687 410 022. anoeta@tolosaldeko hitza.info.  
**Ibarralde:** 687 410 032. ibarralde@tolosaldeko hitza.info.  
**Alegialdea:** 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko hitza.info.  
**Leitza:** 687 410 118. leitza@tolosaldeko hitza.info.

**Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:**

BERTAKO  
HEDABIDEAK



eta Tolosaldeko eta  
Leitzaldeko beste 77 eragile

**Hitza-k Bai Euskarari**



**'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak:** Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Amezketa, Anoeta, Areso, Asteasu, Balarriain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Lizartza, Oresa, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako  
Foru  
Aldundia

**Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua** (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

## A Agenda

### Hitzaldia

■ **Tolosa.** Barre egiten ikastea bizitzaren ikastea da hitzaldia Kultur Etxean 20:00etan.

### Zinema

■ **Tolosa.** Aleksandra filma eman-goto dute Leidor aretoan 19:15ean eta 21:45ean, zine-forumean.

### Kultur hamabostaldia

■ **Amezketan.** Ongi lo egiten ahalegindu hobeto bizitzeko hitzaldia 18:00etan gela polibaletean.

### Deialdiak

■ **Alegia.** Hilaren 23an Bigarren Eskuko Azoka izango da lehenengo aldiz, Joseba Llamas apaiz alegiarrak lan egiten duen Ipar Potosin (Bolivia) nekazal eskolaren alde. Arropak, liburuak, diskak edota jostailuak ari dira jasotzen.

■ **Tolosa.** Hilaren 8an, larunbatarekin, izango da Engomadora Modernako langile ohien bazkaria izango da Fronton jatetxean. Informazioa eta erreserbak 943 117010 eta 943 674669 telefono zenbakietan.

■ **Tolosa.** Ibarra Alurr dantza taldeak Sua ikuskizuna aurkeztuko du hilaren 16an Leidor antzokian 19:30ean. Sarrerak salgai Servikutxan.

■ **Villabona.** Hilaren 16an argazki lehiaketa antolatu du Aizkardik. Izen-ematea, egun berean 09:00etatik 09:30era egoitza (eliza ondoan). 8 km-ko mendi ibilaldi leuna markatuko da argazkiak ateratzeko eta 13:00etarako bukatu behar dute. Argazkiak Tolosako Karlis argazki dendan entregatu beharko dira.

■ **Zizurkil.** Jubilatuen eguna izango da 16an: meza Arantzazuko Amaren elizan, bazkaria Izaskun jatetxean eta dantzaldia. Autobusa 13:45ean Pasusetik. Izen-ematea, 26 eurotan Elizpen, eta Asteasu-koek Iturriondo tabernan.

### Erakusketak

■ **Villabona.** Gurea Zinenan 17:00etatik 20:00etara Villabona-ko Argazki Rallyko erakusketa antolatu dute.

### » GUARDIAKO FARMAZIAK

■ **Tolosa.** Olarreaga, M. Martin Jose Iraola, 10. 943 672438.  
■ **Lekunberri.** Mendia, M.I. Aralar kalea, 25. 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkariaren adierazitako esaneren eta iritzien erantzunkizunik.



## Dentibusean, osasunari begira

**TOLOSA** ● Ahoko eta hortzetako osasuna zaintzearen aldeko kanpaina abiarazi du Gipuzkoako Odontologo eta Estomatologo elkarteak, *Nutrizioa osasuntsua, iribarre freskoa* lelopean. Horretarako atzo goiz eta arratsalde Dentibus-a egon zen Triangulon aparkaturik (Irudian ageri den bezala). Bertaratuei aho eta hortzetako azterketak egin zizkieten dohainik eta hauen gaixotasun ohikoenen berri eman zieten, baita hauen nola au-

rre hartu azaldu ere. Beste hainbat ekintza ere egingo dituzten egunotan; hala, hilaren 9ra bitarte Lehen Hezkuntzako ikasleentzat hitzaldiak eskainiko dituzte; IFA supermerktuan ahoko eta hortzetako osasunari buruzko informazioa banatuko dute. Halaber, Fronton, Julian eta Nicolas jatetxeetan bihar eta etzi ahoentzako hainbat gailu eta bere osasunari buuzko aholkuak banatuko dituzte. ESTI ZEBA

## A Agurrak



**Hodei Galarraga Agirre (Villabona).** Muxu potolo potolo bat familia guztiaren partetik! Eskerrik asko irrifarrea txoko guztietara banatzeagatik!



### URTE ASKOAN!

**Hodei Galarraga (Villabona).** Gaur bi urte. Ilargia bezain politta zara. Maite zaitugu. Paaaaa. Estik.